

# Antxinako fotografixie



## Orain dala berrogei urteko Gabonak

Gabonak badatozela ta, hemen dozue orain dala berrogei bat urteko **Olentzeroa**. Orduan etzan hola esaten, jakiña; batetik izen eta ohitura hori Oñatitik kanporakuak ziralako, eta bestetik frankismo garaiko urre latzeta bizi ginalako. Dana dala, Oñatin be egoten zan Gabon-batzeia: eskolak, abadiak edo umiak euren kasa organizauta, ixa urtero urteten ebein talde haunditxuaguak edo txikitxuaguak, kalerik kale eta auzorik auzo kantuan. Kafe zaharreko eskillaretan agiri dan neskatilla-kuadrilla hau **D.Benigno Iñarrak**, Oñatira etorri barri zala, *Acción católica*ko gaztetxuakin moldau ebena da. Gerora beste gabon-batzale batzuk be egon ziran: **D. Jose M<sup>a</sup> Agirrebaltzategik** ataraten eben dantza-taldia, adibidez; baiña fotografixakua lehentxuagokua da, 1950-1951 ingurukua edo.

Ezkerretik eskumara eta goitik behera honeitzek dira argazkian agerketan diranak. Goiko illaran: **Milagros Urzelai, Tere Ezpeleta, Mari Paz Irizar, Mari Carmen Olalde, Beatriz Ezpeleta, Mari Carmen Galdos, Nieves Albizu, Pili Gorbea, Pili Mugartza, Rosario Berrikano, Kontxita Murgiondo**.

Erdiko illaran: **Ana Mari Igartua, Mari Sol Etxeberria, Anpara Biziola, Mari Luz Arregi, Rexu Letamendi, Mari Carmen Madina, ezezaguna, Mari Anjeles Arregi**.

Beheko illaran: **Arantxa Zulueta, Maribel Elortza Jauregialzo, Mari Carmen Bikuña, Maribel Elortza Ezkibel eta Ines Lizarralde**.

J. E.  
Rexu Letamendik itxittako fotografisia

**FAGOR**  
TALDE INDUSTRIAL KOOPERATIBOA



GURE ESKUALDE ETA  
EUSKADIREN  
ZERBITZUAN

ELKARLANEAN  
ARITZEN DAKIEN  
AGERBIDEA

- Naturopata - Gustavo Elxebeste
- Estheticiana
- Talde terapia
- Masajea

**IZADI**  
**Belar Denda**

Olakua 1C - Tfnoa. 71 60 94  
OÑATI